

VESTIRME MAL Y DESVESTIRME MUCHO

Sara Ayesa



■ MH + UPV/EHU • 2022-23

Arte proiektuak ezagutarazteko programa
Programa de difusión de proyectos artísticos

■ Proiektuaren koordinazioa • Coordinación del proyecto

Luis M^a Pascual: Centro Cultural Montehermoso Kulturunea
Ismael Manterola : Facultad de BBAA de UPV/EHUko AEen Fakultatea
Edurne González Ibáñez: Facultad de BBAA de UPV/EHUko AEen Fakultatea

■ Komisaritza • Comisariado

LEKUTAN Asociación Cultural: Andrea Estankona • Juan Pablo Ordúñez / Mawatres

■ Erakusketa • Exposición

Vestirme mal y desvestirme mucho • Sara Ayesa

■ Data • Fechas

2023ko ekainaren 1etik uztailaren 2ra
Del 1 de junio al 2 de julio de 2023

■ Argitaratzailea • Edita

© Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

■ Argitalpenaren koordinazioa • Coordinación de la publicación

Andrea Estankona
Juan Pablo Ordúñez / Mawatres

■ Argazkiak • Fotografías

Sara Ayesa

■ Testuak • Textos

Nadia Barkate
Sara Ayesa

■ Diseinu eta maketazioa • Diseño y maquetación

Ibon Sáenz de Olazagoitia

■ Itzulpena • Traducción

Vitoria-Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzua
Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

■ Inprimategia • Imprenta

Gráficas Dosbi

■ ISBN: 978-84-96845-96-1

■ LG • DL: LG G 00000-2023



■ Programa honen katalogo digital guztiak eskuragarri daude **montehermoso.net** webgunean.
■ Todos los catálogos digitales de este programa están disponibles en la web **montehermoso.net**.

[eu]

Erakusketa-sorta hau Montehermoso kulturunearen eta EHUko Arte Ederren Fakultatearen arteko lankidetzaren emaitza da. Erakunde biek harreman emankor bati ekin genion 2012an, Leioako Fakultatean ikasitako artista hasi berrien lana ekoiztera bideratuta.

Harreman horri esker, eta orain artekoan, lehen urratsak eman ahal izan ditu artista gazte andana batek, beren lanak jendaurrean erakusteko bide nekezean.

Proiektua kontu handiz zaindu izanak, proiektuan hobekuntza txikiak pixkanaka txertatzeak, eta, batez ere, formula denboran zehar finkatzeak, faktore horien eraginez, ekimena aukera preziatua bihurtu da hasten ari diren artisten lana erakutsi eta balioesteko, eta baita arte-mintegi eder bat ere gure testuinguru kulturallean.

Hasierako erakusketa kolektiboko formatua banakako lau erakusketakora aldatu zen duela urte gutxi batzuk. Horrek lan hautatuak ardura handiagoz jorratzea eta antolaketa- eta produkzio-lan handiagoa eskatzen du, helburu bakarra delarik artista partaideei beren ahalmenak neurtzeko aukera emankorra eskaintzea.

Aurrerapauso horri esker, ikasturte honetan ere lau artista gaztek beren lana eta obra erakutsi ahal izango dute Montehermoso kulturunean, urte osoan garatuko den ekimen batean, zeinaren bitartez egungo ikerkuntza artistikoaren ikuspegi interesgarri bezain anitza eskainiko den, bai eta erakusketa moldeen eta egungo gizartearekin planteatzen dituzten harremanena ere.

[es]

La presente muestra surge de la colaboración entre el Centro Cultural Montehermoso y la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU. Ambas instituciones iniciaron en el año 2012 una fructífera relación que articula recursos de cara a la producción de artistas emergentes formadxs en la facultad de Leioa.

Dicha relación ha permitido hasta el momento dar sus primeros pasos a un gran número de artistas en el difícil camino de la exposición pública de sus obras.

Así, el cuidado y las pequeñas mejoras que se han venido introduciendo en el proyecto, pero sobre todo el asentamiento en el tiempo de esta fórmula, ha acabado convirtiéndose en una preciada oportunidad para el arte emergente y en todo un semillero artístico para nuestro contexto cultural.

Lo que venía siendo una exposición colectiva, se transformó hace algunos años, en una serie de cuatro exposiciones individuales, exigiendo para ello una mayor responsabilidad en el abordaje de los distintos proyectos, así como un mayor trabajo organizativo y de producción con el único objetivo de ofrecer un fructífero ensayo de posibilidades para los y las artistas que participan.

Gracias a este paso adelante este curso también, cuatro jóvenes artistas van a desplegar su trabajo y su obra en el Centro Cultural Montehermoso en una experiencia que se desarrollará durante todo el año y que ofrecerá una interesante y diversa panorámica de la investigación artística actual, de sus formas de exhibición y de las relaciones que plantea con nuestra sociedad actual.



Izenik gabe, 2023. Olio-pintura paperean, 28 x 26 zm.

Sin título, 2023. Óleo sobre papel, 28 x 26 cm.

Sara Ayesa

Donostia, 1997

Biografia

Arteko gradua eta Pintura masterra egin zituen EHUn. 2019an, Itziar Okarizek eta Jon Mikel Eubak emandako tailerrean parte hartu zuen eta, 2021ean, *laSIA* antolatutako *Harri, Orri, Ar* mintegian. 2022an Tabakalerako artista egoiliarra izan zen. Erakusketa kolektiboetan erakutsi ditu haren lanak: “Boogity Shu”, Bizkaiko Bazar Nagusietan; “Under grass”, HARRIAK programaren barruan; eta “Karaoke”, AZPI Kultur Elkartean.

Biografía

Realiza el Grado en Arte y el Máster en Pintura en la UPV/EHU. En 2019 participa en el taller impartido por Itziar Okariz y Jon Mikel Euba y en 2021 en el seminario *Harri, Orri, Ar* organizado por *laSIA*. En 2022 es artista residente en Tabakalera. Expone de manera colectiva “Boogity Shu” en las Juntas Generales de Bizkaia, “Under grass” dentro del programa HARRIAK y “Karaoke” en AZPI Kultur Elkartea.

Nire egiteko moduak Rosaliaren esaldi honen antzera funtzionatzea gustatuko litzaidake: gaizki jantzi eta asko erantzi.

Gaizki jantzi

Niretzat aurpegi batzuek grazia dute, beste batzuek ez duten kutsu berezia. Ez da batzuk proportzionalagoak edo harmonikoagoak direla, ez du edertasunarekin eta bere kanonenik zerikusirik, baina ezaugarriren bat neurritz gaındikoa edo markatua izango lukete, eta horrek berdingabe egiten ditu. Aurpegi oso adierazkorrak, karikaturen antzekoak, ukitu batekin nabarmentzen direnak eta nire ustez erakarri egiten dutenak. Horrek pentsarazten dit grazia ikusten ez dugun eta ikustea kostatzen zaigun zerbaitengan egon litekeela, erakarpenaren eta arbuioaren artean, ez genuke estimatzen jakingo eta ikusteko deserosoa ere izan daiteke, baina, hala ere, ezin diogu begiratzeari utzi. Uste dut arteak antzeko funtziona dezakeela.

Gitarra bati entzun nion esaten: "Loverman hau oso gaizki jo dute, baina ezin da hobeto jo".

Asko erantzi

Konturatu naiz nire obran nahiago dudala baldartasuna erraztasuna baino. Margetzerako garaian, gaizki egin nahiko nuke, nahiz eta ez den erraza gaizki egitea. Dagoeneko egiten badakidana eginez aukera gutxiago daude ikasteko eta prozesuan sakontzeko; horretarako, krisian sartu beharko nintzateke sarritan, hasieran emaitzekin identifikatuta sentitu gabe, baina denborarekin horiek aitortzeko eta balioa emateko gai izan beharko nuke.

Me gustaría que mi forma de hacer funcionara como esta frase de Rosalía: vestirme mal y desvestirme mucho.

Vestirme mal

Para mí hay caras que tienen gracia, un aire especial que otras no tienen. No es que unas sean más proporcionadas o más armónicas que otras, no tiene que ver con la belleza y sus cánones, pero sí tendrían algún rasgo exagerado o marcado, que les hace ser algo único. Caras muy expresivas, como caricaturas, que destacan por un toque que a mí me parece que cautivan. Esto me hace pensar que, la gracia, podría estar en algo que no solemos y nos cuesta ver, entre la atracción y el rechazo, que no sabríamos precisar y hasta un poco incómodo de observar, pero a pesar de eso no podemos dejar de mirar. Creo que el arte podría funcionar parecido.

Le escuché a un guitarrista decir: "Este Loverman está muy mal tocado pero no se puede tocar mejor."

Desvestirme mucho

He descubierto que en mi obra prefiero una torpeza más que una facilidad, a la hora de pintar querría hacer que la cosa vaya mal, aunque no es fácil de llevar que la cosa vaya mal. Haciendo lo que ya sé hacer es menos probable que se den situaciones de aprendizaje y poder profundizar en el proceso, para ello tendría que entrar en crisis cada dos por tres, no identificarme al principio con los resultados pero con el tiempo ser capaz de reconocer y darles valor.



Izenik gabe, 2023. Olio-pintura paperean, 28 x 26 zm.

Sin título, 2023. Óleo sobre papel, 28 x 26 cm.

Nire koadro ideala bere kabuz helduko litzateke existitzera, ez litzateke ezeren mende egongo, eta bere esentzia beste ezer ez luke irudikatuko. Den hori izango litzateke koadro ideala, literalki, koadroan modu aktiboan dagoena izango litzateke, bere tentsioekin eta erritmoekin. Modu errealean gertatuko litzateke eta existitzen den gauza baten antzera eraikiko litzateke, oina oina den moduan eta pertsona pertsona. Aldi berean, koadro bakoitza besteekin erlazionatzen da, eta, hala, berezko sintaxia sortzen dute eta, begiratzera, kontatzeko zerbait dutela sentituko genuke.

Oraindik ikusi ez dudak zerbait ikusgarri egin asmoz, nire koadro idealak kontuan izango luke pinturaren alderdi konbentzionala, koloreak erabiliko nituzke, erritmoak eta indarrak komunikatzeko, baina, era berean, pinturarekiko dudak ideiak ez lidake eragotziko horrek aurrera egitea. Esanahirik aurreratu gabe, niretzat pintatzea zer den zalantzan jartzeta eta hala margolariaren nire bertsioa sortzen joatea.

Mi cuadro ideal llegaría a existir por sí mismo, no dependiendo de nada para ser, ni representando nada más que su propia presencia. El cuadro ideal sería lo que es, literalmente, sería lo que está en el cuadro de forma activa con sus tensiones y ritmos. Estaría pasando de manera real y se construiría como cosa que existe, como un pie es un pie y una persona es una persona. Al mismo tiempo cada cuadro se relacionaría con los demás, generando así una sintaxis propia y al observarlos sentiríamos que algo tienen para contar.

Pretendiendo hacer visible algo que no he visto todavía, mi cuadro ideal tendría en cuenta la parte convencional de la pintura, usaría colores, ritmos y fuerzas para comunicarse pero al mismo tiempo la idea que tengo de la pintura no impediría que ésta evolucionase. Sin anticipar significados, cuestionar lo que para mí es pintar y ir creando así mi versión de pintura.



Izenik gabe, 2023. Olio-pintura paperean, 28 x 26 zm.
Sin título, 2023. Óleo sobre papel, 28 x 26 cm.



Kaxak

Las cajas

Nadia Barkate

Kaxen barruan bizi garela dakigunontzat ez dago atsedetik, hara eramaten gaituen jakin-mina agortu arte. Eta galbidea izan zen: orain begi hutsa gara. Bazirela jakin genuenetik, ezin izan genuen gelditu. Zerumuga kaxa baten barruan dago. Dena dago kaxaren barruan. Eta apur bat errepikakorra da dena.

Ohiz kanpoko konbinazioak gertatzen dira frutaren eta txanponen argi bristaden artean. Eta dena hautakorra da, eta, aldi berean, ezer ere ez. Amona burua galtzen hasi da, ahaztu egin baitzaio non utzi dituen giltzak edo norbaiten izena, baina haren aspaldiko oroitzapenak zehatzak eta argiak dira. Ez du gogoratzen zer bazkaldu berri duen, baina ahosabaian ezin hobeto gordeta du eskolako natillen testura eta zaporea, ahosabaian itsasten zen galleta biguna gainean izaten zuten natillena. Begi nekatuak fokuratu eta desfokuratu, eta kaxak ireki ditugu. Egunez lerroan flotatzen dute txalupek, inklinazio berarekin, baina benetako bandera eta islatutako bandera ez dira berdin mugitzen. Goiza sartu da pertsianatik, eta asko desbideratu da erpinera iristean. Ihesean doazen zerrendez bete da gela osoa. Kupulak Is-tanbulen, edo erditik moztutako laranjak plateretan garrasika, beste tapa bat altxatzean. Bananak eta mertxikak, mendia- ren atzean pilatuta. Mitxoletak gertutik. Lumak, baleen isatsak eta itsaslabarrak. Sandia zukua zeruan eztanda egiten, mi- niaturan, zapata batzuen barruan.

Tripaz gora urertzera igerian doan igarabaren eszenarekin hasten da kaxa

Para quienes sabemos que vivimos dentro de las cajas, no hay descanso, hasta agotar la curiosidad que nos lleva ahí. Y fue la perdición: ahora somos todo ojo. Una vez supimos de su existencia no pudimos parar. El horizonte está dentro de una caja. Todo lo está. Y todo es un poco repetitivo.

Combinaciones insólitas se dan entre destellos de luz de fruta y monedas. Y todo es selectivo, y a la vez, nada lo es. La abuela empieza a perder un poco la cabeza porque olvida dónde ha dejado las llaves o el nombre de alguien, aunque sus recuerdos lejanos son precisos y cristalinos. No se acuerda de que acaba de comer pero tiene en el paladar perfectamente conservadas la textura y el sabor de las natillas de su colegio, con la galleta blanda en la superficie que luego se le pega al paladar. Enfocamos y desenfocamos la vista cansada y abrimos las cajas. Las barcas flotan de día en fila y con la misma inclinación, pero la bandera real y la del reflejo se mueven diferente. La mañana entra por las persianas y se desvía muchísimo al llegar al vértice. Toda la habitación se ha llenado de franjas que fugan. Cúpulas en Estambul o naranjas partidas por la mitad chillando en los platos, al levantar otra tapa. Plátanos y melocotones amontonados detrás de la montaña. Amapolas de cerca. Plumas, colas de ballena y acantilados. Zumo de sandía estallando en el cielo en miniatura dentro de una de zapatos.

Está la caja que empieza con la escena de la nutria que panza arriba, nada hacia

bat; enbor bat darama arrastan, eta han lehorreratu du. Haren barruan Audi A4 bat gidatzen ariko bagina, kurba egitean, paisaia osoarekin talka egingo genuke, okertzen hasi eta segundo batzuetara. Kolpatutako kaxa batean infusio bat prestatu dut, eta Sararentzako testua idatzi. Ondoren eta ez aurretik, idazteko eskatu zidan, baina ez zidan inolako arrazoirik eman; apur bat kontzentratzea lortu nuen, ihes egin zidan arte. Haren konfiantza egon ei zen haren betaurrekoen kaxan, baina nik ez nuen ikusi. Gero eta jende gutxiagok ditu betaurrekoak. Irekitzen jarraitzen dugu, askoz ere gehiago; batean, U-Bahn txartelak, zulatuta; bestean, postalak, azerien eta beste kume batzuen holograma txikiak. Lo daude gehienak, kumeak egon ohi diren moduan. Basoko loreak baina, batez ere, izpilikua, oso ongi geratzen baita argazkietan. Gailur malkartsu elurtuak, norabide askotara begira, Gaztelako so-roen adabakiak.

Badira hainbat ardo kaxa, barruan erortzeko zorian dauden noria koipetsu samarrak dituztenak. Denbora dezentean egon dira gordeta, eta biltzeko zinta marroi erdi lehortu askorekin konponduta daude. Badira kaxa berriagoak, itxiak, ukitze hutsarekin hatzetako azala ebakitzten dutenak. Beste batzuk hain daude erabiliak, ezen bigunak baitira eta horietan gauza gehiago sartzen direla baitirudi; eta, ziur asko, gaua dute barruan, asko hedatzen baita. Edo baliteke eguna izatea, hark ere behar baitu bere lekua.

la orilla arrastrando un tronco y allí lo vara. Si fuéramos conduciendo un Audi A4 dentro de ésta, al tomar la curva, nos tragáramos todo el paisaje unos segundos después de que empezara a inclinarse. En una caja golpeada me pongo una infusión y escribo el texto para Sara. Después y no antes, en la que ella me pidió que lo escribiera, pero tampoco me dio ningún motivo, conseguí concentrarme un poco hasta que se me escapó. Debía estar su confianza en la caja de sus gafas, pero yo no la vi. Cada vez, menos gente lleva gafas. Seguimos abriendo, muchas más, en una billetes de U-Bahn picados, en otra postales, pequeños hologramas con zorros y otros cachorros. La mayoría están dormidos, como suelen hacerlo las crías. Flores silvestres pero sobre todo lavanda que queda muy bien en las fotos. Abruptas cumbres nevadas apuntando en muchas direcciones, parches de campos de Castilla.

Hay unas cuantas cajas de vino que tienen dentro norias en ruinas un poco grasientas. Llevan bastante tiempo almacenadas y están remendadas con mucha cinta de embalar marrón medio seca. Hay cajas más nuevas, cerradas que rebanan piel de los dedos con solo tocarlas. Hay otras que están tan usadas que son blandas y parece que cabe más, y probablemente lo que tienen dentro es noche porque se extiende mucho. O puede que día, que también necesita su espacio.



Izenik gabe, 2023. Olio-pintura paperean, 28 x 26 zm.
Sin título, 2023. Óleo sobre papel, 28 x 26 cm.





Izenik gabe, 2023. Olio-pintura paperean, 28 x 26 zm.

Sin título, 2023. Óleo sobre papel, 28 x 26 cm.



Sala Jovellanos Aretoa

Arte proiektuak ezagutarazteko programa

Programa de difusión de proyectos artísticos

Programa hau, Arte Ederretako ikasleen proiektuak ezagutarazteko asmoz Montehermoso Kulturuneak eta EHUko Arte Ederren Fakultateak eratu duten lankidetzaz hitzarmenaren baitan kokatzen da. Deialdiak duen helburua prestaketa-aldian dauden artisten proiektuak ikusarazi eta ezagutaraztea da, bai eta ekoizpen-eta prestaketa-eremuen artean eztabaida eta trukerako gune bat sortzea ere, hartara artistei eremu profesionalarekin eta testuinguru lokalarekin harreman zuzena osatzen laguntzeko.

Este programa se enmarca en el convenio de colaboración establecido entre el Centro Cultural Montehermoso y la Facultad de Bellas Artes de la EHU/UPV para la difusión de los proyectos de alumnado de Bellas Artes. La convocatoria persigue visibilizar proyectos de artistas en fase de formación, así como generar un espacio abierto de debate e intercambio entre el espacio de producción y el formativo, estableciendo un vínculo directo con el ámbito profesional y el contexto local.

■ Vestirme mal y desvestirme mucho • Sara Ayesa

2023ko ekainaren 1etik uztailaren 2ra

Del 1 de junio al 2 de julio de 2023



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea